



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 4a

2. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- 10-22/PES-00258. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Zuberoaren arteko muga, Iturtzaeta aldean, berriro ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 10-22/PES-00259. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan klausula sozialak aktibatzeke hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 10-22/PES-00260. Galdera, pobrezia eta bazterketari buruzko azterlan estatistikoetan eta txosten teknikoetan desgaitasunaren aldagaia sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 10-22/PES-00261. Galdera, Haur Pobrezia Gai Komisarioarekin koordinatzeko ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 10-22/PES-00262. Galdera, programa-akordioekiko ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 10-22/PES-00263. Galdera, Gerra Zibilean eta frankismoan zehar Nafarroan gertatutakoari dagokionez ikastetxeetako testuliburuak aztertzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 10-22/PES-00264. Galdera, 2021ean artatu gabe geratu ziren sexu- eta ugalketa-osasun zerbitzuetarako eskaerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 10-22/PES-00265. Galdera, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko 2021eko soldata-arrakalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 10-22/PES-00266. Galdera, espezie autoktonoen biodibertsitatea erresilientzia faktore gisa babesteko Gobernuaren ekimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 10-22/PES-00267. Galdera, natur ondasunen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 10-22/PES-00268. Galdera, ekoizpen- eta hornidura-kateetan bidezko merkataritzakoak eta baldintza sozialekiko arretakoak diren irizpideak jasotzen dituzten klausula sozialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 10-22/PES-00269. Galdera, kontsumo bulegoetako langile teknikoei kontsumo arduratsuen arloko prestakuntza emateko egin diren urratsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 10-22/PES-00270. Galdera, Nafarroako enpresek energiaren arloan dituzten merkataritza-harremani buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- 10-22/PES-00271. Galdera, pobrezia energetikoaren arloan esku-hartzeko Nafarroako Gobernuak sustatutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 10-22/PES-00272. Galdera, , interneterako sarbiderik ez duten edota gaitasun digital apalak dituzten talde zaugarrienei aurrez aurreko arreta bermatzeko hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 10-22/PES-00273. Galdera, itsaspeko biziaren babesari buruzko sentsibilizazio eta kontzientzia kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 10-22/PES-00274. Galdera, itsaso eta ozeanoen kontserbazioa eta ibaien garbitasuna indartzeko herrialde pobretuetan gauzatutako ekimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 10-22/PES-00275. Galdera, Efficold S.A. enpresarekin eginiko FFP2 maskara-hornidurako kontratuaren gaineko eragozpen-ohar etengarriaren ondoren egin gabeko kontu-hartzailtza nagusiaren txostena prestatzeko eskaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 10-22/PES-00276. Galdera, osasun arloko kontu-hartzailtza delegatuak Efficold S.A. enpresarekin eginiko FFP2 maskaren hornidurarako kontratua zela-eta emandako eragozpen-ohar etengarriaren gainean Kontu-hartzailtza Nagusiak egindako txosten-zirriborroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 10-22/PES-00277. Galdera, 2020ko ekainean eta abuztuan, merkaturan CE marka zuten maskarak egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 10-22/PES-00278. Galdera, Efficold SA enpresarekin FFP2 maskarak erosteko kontratuak formalizatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 10-22/PES-00279. Galdera, osasun arloko kontu-hartzailtza delegatuak eragozpen-ohar etengarria emanik Osasunbideak fakturak ordaindu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 10-22/PES-00280. Galdera, 2020ko ekainetik abendura bitartean FFP2 maskarek merkaturan izandako batez besteko hileko prezioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 10-22/PES-00281. Galdera, FFP2 maskarak Efficold SA enpresari erosteko kontratua dela-eta osasun arloko eledunei deitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 10-22/PES-00282. Galdera, FFP2 maskarak Efficold enpresari erosteko kontratuaren eragozpen-ohar etengarriari buruz Kontu-hartzailtza Nagusiko zerbitzu juridikoei kontsultarik egin ez izanaren zergatiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 10-22/PES-00283. Galdera, kontu-hartzailtza delegatuak eginiko eragozpen-ohar etengarri baten ondoren Kontu-hartzailtza Nagusiak bigarren txostena egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 10-22/PES-00284. Galdera, FFP2 maskarak Efficold enpresari erosteko espedientean Kontu-hartzailtzailetzako zuzendari nagusiak bigarren txostena egin aurretik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2022ko ekainaren 6rako deitutako bilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 10-22/PES-00285. Galdera, 2020ko ekainetik abendurako epean egondako CE marka zuten FFP2 maskaren eskaintzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko. 10. oinarritik 12. oinarrira bitartekoak aldatzea eta eskabideak aurkezteko epe berri bat abiaraztea (34. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-22/PES-00258. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Zuberoaren arteko muga, Iturtzaeta aldean, berriro ixteari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Zuberoaren arteko muga, Iturtzaeta aldean, berriro ixteari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du (10-22/PES-00258). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Egin diren galdera zehatzei erantzun baino lehen, komeni da muga itxieraren arazoa bere testuinguruan jartzea. Bada, pandemiaren krisi betean (2020ko maiatzean) Espainiako eta Frantziako estatuak –eta Europako beste estatu batzuek– mugak ixtea erabaki zuten eta horrek kalte larriak eragin zizkien muga aldeetako herritarrei, bereziki, eta mugaz gaindiko lankidetzari, oro har. Egungo egoera bestelakoa da, baina oraindik ere baditugu estatuen erabakien ondoriozko arazoak eragin negatiboa dutenak muga aldeetako herritarrengan, gero ikusiko dugunez.

Mugak lehen aldiz itxi zirenean, 2020ko testuinguru hartan, Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuak mugak berriz irekitzeko eskatu zuen bere eskumeneko foro guztietan: bi estatuak eskatu genien, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen bitartez eta Pirinioetako Lan Komunitatearen bitartez, eta nik neuk zuzenean azaldu nion Espainiako Estatuari, Europar Bata-

sunarekin Lotutako Gaietarako Konferentzian (CARUE); azken hori Estatuko Administrazio Orokorren eta autonomia erkidegoen arteko lankidetzaren organo multilateralak da Europar Batasunaren gaiak jorratzeko.

Azkenik, adierazi den bezala, mugak ireki egin ziren 2020ko ekainaren 21ean. Urte erdi pasatxo geroago, ordea, berriz itxi ziren partzialki, beste arrazoi batzuegatik. Zehazki, 2021eko urtarrilean Frantziako Estatuak bere kasa dekretatu zuen Nafarroako mugako hamar pasaguneetatik zazpi ixtea, arrisku terrorista zela eta. Ibardin (Bera), Dantxarinea (Urdazubi) eta Luzaide-Arnegi bakarririk gelditu ziren zabalik.

Erabaki horrek beste behin ere oso ondorio negatiboak izan zituen muga aldeko herritarren eguneroko bizitzan, eta Kanpo Ekintzarako zuzendari nagusiak halaxe adierazi zion Pirinio Atlantikoetako prefetari, hau da, Frantziako Estatuari, Pirinioez Gaindiko Konferentzia Atlantikoak urte horretako otsailean egin zuen osoko bilkuran.

Hasiera batean itxitako zazpi pasaguneetatik hiru martxoan ireki ziren: Lizuniagako mendatea (Beratik Sarara), Lizaietako mendatea (Etxalarko uso-ehizategiak) eta Zugarramurditik Sararako bidea (Berrouet bentatik). Beste lau itxita daude: Izpegiko mendatea (Erratzutik Baigorriara), Urkiagako mendatea (Eugitik Aldudera, Kintotik), Iturtzaetako mendatea (Zaraitzutik Larrainera) eta Belaguako mendatea (Izabatik Eretara, San Martin Harria).

Irekiera partzial horrek ez zuen konpondu arazoa. Hain zuzen ere, 2021eko abuztuan, Larra-Larraine zikloturismo probaren sustatzaileak eskaturik, Pirinio Atlantikoetako Prefekturarengana jo behar izan genuen eta Gobernuaren Ordezkaritzari ere laguntza eskatu genion irailan egitekoa zen proba salbatzen saiatzeko, muga igarotzeko baimenak ukatzen zizkiotela eta.

Gobernuaren Ordezkaritzaren eta Kanpo Arazoetarako Ministerioaren lankidetzaren proaktiboa azpimarratu behar da, bitartekari aritu baitziren Frantziako Estatuaren aurrean. Hala, azkenean Prefekturak baiezkota eman zuen proba egiten uzteko, nahiz eta San Martin Harriko pasagunea itxita egon. Tamalez, baimena berandu iritsi zen: 800 inskripzio baino gehiago egin ondoren, sustatzaileak hitzordua bertan behera utzi behar izan zuen galera ekonomiko handiagoak ez izateko.

Egoera ikusita, beste kexa bat azaldu genuen Pirinioetako Lan Komunitatearen osoko bilkuran, 2021eko abenduaren 13an. Han adierazi genuen kontraesan izugarria zela mugaz gaudik lankidetzaz hitz egiten ari ginen bitartean Pirinioetan zehar mugako pasagunak ixten jarraitzea.

San Martin Harriko pasagunea 2021eko abenduaren amaiera aldera ireki zen, azkenean. Baina 2022an hiru pasagune itxita ditugula jarraitzen dugu: Iturzaeta, Urkiaga eta Izpegi. Eta egoera horrek muga inguruko herritarrei arazoak sortzen jarraitzen du.

Mugako pasagune horien itxierak aurten berriro eragin dio Nafarroako Pirinioetako zikloturismo proba garrantzitsuenetako bati, Irati Xtrem probari; baimenak eskatzera joan, eta berriro egin zuten topo Prefekturaren itxiera-dekretuarekin. Egoera horrek Nafarroako Pirinioen ekialdeko toki agintarien kezka areagotu zuen, eta martxoaren 31rako bilera deia egin zuten, Nafarroako Gobernuarekin batera arazoari heltzeko. Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuak bileran parte hartu zuen.

Otsagabiko eta Izabako alkateek deitu zuten bilerara –Mikel Aoz eta Carlos Anaut hurrenez hurren–, eta han izan ziren Zaraitzuko eta Erronkariko batzordeetako ordezkariak eta Irati Xtrem probaren sustatzaileak. Mugako pasagunak itxi izanaren ondorioez eta har zitezkeen neurriez aritu ziren. Bileraren ondoren, Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritza jakitun jarri zen, eta Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuak gutuna bidali zion Pirinio Atlantikoetako prefetari, baimena eskatuz Irati Xtrem eta Larra-Larraine probetarako. Baina prefetaren erantzuna ezezkota izan zen.

Erantzuna ikusirik, egoeraren berri eman nion Pirinio Atlantikoetako Departamentuari, eta eskatu nuen Jean Jaques Lasserre lehendakariak bitartekotza egin zezala, harekin alde biko lankidetzaz akordioa baitugu.

Azkenik, maiatzaren 2an jakin genuen Prefekturak baimena eman zuela Irati Xtrem proba ekainean egiteko. Hala ere, salbuespenezko neurria

da hori, eta mugako hiru pasaguneez itxita segitzen dute.

Egoera horren aurrean, Zaraitzu Ibaixaren Batzordeak Oriko muga (Larraine) itxtearen kontrako adierazpen instituzionala helarazi zion departamentuari. Bertan kezka agertu zuen, itxierak eragin negatiboa izanzen ote zuen bi aldeetako abuztuaren 28an mugariak eta mugak egiaztauzeko Pikatuan egiten duten topaketa tradizionalan. Adierazpen horretan Batzordeak ezinezona adierazten du, eta hau zehazten du: “Egoera horrek distortsio ekonomikoa sortzen du gure ingurunean, eta kalte egiten die turismoari, abeltzaintzari, basogintzari eta kulturagintzari, baina, batez ere, Pirinioez bi aldeetako herritarren harreman pertsonal eta administratiboei”.

Adierazpen horren haritik beste gutun bat bidali nien prefetari eta Pirinio Atlantikoetako lehendakariari. Bertan, mugaz gaudik topaketa ahalbidetzeko eskatu nien, Zaraitzuko hautetsien ezinezona helarazi, eta egoera lehengoratu eta Nafarroako mugan zehar pertsonen zirkulazio askea berrezartzeko deia egin nien. Ospakizuna arazorik gabe gauzatu zen, baina Prefekturak oraindik ez du kendu mugako hiru pasaguneez itxiera.

Geroztik, nire departamentuak eta nik neuk, mugaz gaudik lankidetzarako hainbat forotan Nafarroako Gobernuaren ordezkari garen aldetik, ekintza hauek sustatu, sinatu eta sostengatu ditugu:

- Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko Batzorde Betearazlearen irailaren 28ko adierazpena, mugak irekitzeko erreklamatzeko duena.

- Pirinioetako Lan Elkartearen (PLE) Batzorde Betearazleak irailaren 29ko eta 30eko batzarrean egindako proposamena: mugen itxieraren arazoa aipa dadila azaroko osoko bilkuran lehendakariak egiten duten adierazpenean. EAE, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Andorra, Akitania Berria eta Okzitaniako lehendakariak dira adierazpen hori sinatuzekoak.

- PLEko idazkari nagusi Mikel Antonek mugen itxieraren gaia aipatu zuen bere hitzaldian, POC-TEFA 2014-2020 programaren balantzeari buruzko ekitaldiaren hasieran, Bilbon, urriaren 4an.

- Urriaren 4an bertan, Baionan, Mathieu Berger Euroeskualdeko lehendakari delegatuak mugen itxiera zela eta protesta egin zuen Mission Opérationnelle Transfrontalière (MOT) erakundearen aurrean (Frantziako Estatuan mugaz gaudik gaiez arduratzen den erakundea).

Gainera, Alain Rousset Euroeskualdeko lehen-dakariak mugako pasaguneak berriz irekitzeko eskatzen duen gutuna bidali dio Elisabeth Borne Frantziako lehen ministroari. Nafarroako Foru Komunitatea euroeskualde horretako kide da.

Eta aurtengo apirilean, EBko Justizia Auzitegiak ondorioztatu du estatu kideek barne mugetan ordena publikoaren edo barne segurtasunaren aurkako mehatxuengatik ezarritako kontrolek ezin dutela sei hilabete baino gehiago iraun eta ezin

direla berriro ezarri beste mehatxuren bat agertu ezean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olo Hualde

## 10-22/PES-00259. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan klausula sozialak aktibatzeke hartutako neurriei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan klausula sozialak aktibatzeke hartutako neurriei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Alvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 5093 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko irailaren 26an (10-22/PES-259 galdera), Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan klausula sozialak aktibatzeke hartutako neurriei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen zioen azalpenak honako hau dio:

II.- Foru legearen helburuak

“Europako 2020 Estrategia”rekin bat, kontratazio publikoak zeregin garrantzitsua du, enplegu, produktibitate eta kohesio sozial handiagoak ekarriko dituen garapen ekonomikoko eredu bat sortzen lagundu beharko duen tresna den aldetik, funts publikoen erabilera efizientea berma-

tzearekin batera. Esparru horren barrenean, zuzentarauek xede hori lortzeko helburuak aurreikusten dituzte; esate baterako, merkatu lehiakorrago sustatzea, enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikoan parte-har dezaten erraztea, eta bitartekoak ematea kontratazio publikoa gizarte, ingurumen edo ikerketa politiketan tresna gisa erabiltzeko, modernizaziorako asmoarekin eta globalizazio ekonomikoaren testuingurua aintzat harturik.

Horiek dira, beraz, foru lege honek ere bere egiten dituen helburuak, eta Nafarroako ordenamendu juridikora ekarri nahi dituenak, guztiz aplikagarriak izan daitezten.

Europar Batasunaren ustetan, ezinbestekoa da merkatu bakarra eta lehiakorrago sustatzea, gastu publikoan efizientzia handiagoa lortzeko bitartekoa izan dadin; izan ere, lehia handitzeak kalitate-prezio erlazio onena lortzeko aukera ematen duela ulertzen du, eta kontzeptu hori hemendik aurrera funtsezkoa izanen da zuzentzarau berrien eta foru lege honen baitan egiten den edozein adjudikaziotan. Aldi berean, ulertu da erdietsi nahi ditugun efizientzia eta lehiakortasuna lortzeko beharrezkoak direla arau errazagoak eta eraginkoragoak, adjudikazio botereen lana ez ezik lizitazioetan parte hartzen duten enpresa eta profesionalena ere errazteko.

Bestetik, lehen esan bezala, foru lege honen helburu nagusietako bat enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikoan parte har dezatela lortzea da, Europar Batzordeak berak ezarritakoarekin bat, zeinak “Merkatu Bakarraren Aktara bidean, merkatuko ekonomia sozial lehiakorren alde”

izeneko COM(2010)608 agirian hau adierazi baitzuen: Enplegurako potentzial handiena enpresa txiki eta ertainek dute; merkatu bakarrean bete behar duten zereginari arreta berezia eman behar zaio, eta haien kezkei erantzuteko jarduketa berariazkoak bete beharko dira”. Horretarako, azpimarratzekoak dira prozedura errazteko neurriak, batetik, eta zama administratiboen jaitziera, bestetik, foru lege honetan jaso direnak.

Kontratazio publikoa genero berdintasunaren, gizarte, ingurumenaren edo ikerketaren arloko politiketan tresna gisa erabiltzeak garrantzi handiagoa du orain, ulertu delako lotura zuzena dutela interes orokorrek, eta funts publikoak erabiltzeko modu egokia direla, kontratu bakoitzak bete nahi duen helburu zehatzagotik harago. Horregatik, “klausula horizontalak” dei daitezkeenak ezartzen dira foru lege honetan, honako arloetan: gizon eta emakumeen arteko genero berdintasunaren arloko eta gizarte-, lan- eta ingurumen-gaie-tako araudia kontratuaren fase guztietan betetzen dela zaindu eta exigitu behar da, lizitatzailen hautaketatik hasi eta kontratua exekutatu arte; eta beharkizun horiek ez betetzeak justifikatzen ahal du prozedura batetik kanpo uztea, eskaintza bat ez onartzea edo jadanik adjudikatutako kontratu bat suntsiaraztea.

Aurrekoaren arabera, kontratazio estrategikoak hainbat alderdi ditu (gizartea, ingurumena, berrikuntza...), eta horien guztien artean, ETEen parte hartzea bereziki hartu behar da kontuan bai Europako erakundeetan bai Kontratu Publikoari buruzko Foru Legean bertan. Kontratazio publikoan ETEen parte hartzea hobetzea helburutzat har daiteke berez, baina, horrez gain, bitarteko baliagarria ere bada kontratazio publikoaren gainerako helburu estrategikoak lortzeko (gizarte, ingurumen, genero

edota berrikuntza arlokoak, etab.). Hori horrela, jarraian azaltzen diren jarduketei ekin zaie, beste ezer baino lehen egin beharreko urrats gisa.

Aurrekoa kontuan izanik, kontratazio publikoaren arloko gastuaren azterketa egin ondoren (Kontratazio Atarian argitaratuta dago nahi duten guz-

tien eskura), erabaki zen Foru Komunitateko ETEengana hurbiltzen hastea haien premien berri entzuteko eta erantzunak planteatzeko, lizitazioetan gehiago parte har zezaten eta arrakasta tasa hobea izan zezaten.

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak lagunduta eta parte hartuta –CEPYMEN konfederazio horren barnean dago–, Ondare Zerbitzuak bilera sorta bat egin zuen, eta ezarritako helburuari begira konklusio baliagarriak atera ziren bilera horietan. Erabaki zen konklusioetatik eratorritako zenbait neurri inplementatzea Kontratazio Publikoaren Batzarraren bitartez, kontratazioan esku hartzen duten eragileak erakunde horretan elkartuta baitaude. Hala, 1/2022 Zirkularra argitaratu zen: 2/2018 Foru Legearen aplikazioari buruzko gomendioa, ETEek kontratazio publikoan parte har dezaten errazteko. Kontratazio Atarian eskurgarri dago nahi duten pertsona guztientzat.

Gainera, erakunde kontratatzaileen beharrak eta ETEenak elkarri hurbiltzeko asmo berarekin, jarduketa hauek egin dira:

- Kontratazio publikoaren oinarritzko gida. Hiru bideotan jaso da, eta horiek ETEei banatuko zaizkie Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin elkarlanean. Bideo horiekin, gainera, autoprestakuntzarako ikastaro bat osatu da kontratazio publikoan esku hartzen duten langile publikoentzat, NAPIrekin elkarlanean (izena emateko epea 2022ko urriaren 20an hasi da)

- Kontratazio publikoan ETEek parte har dezaten sustatzeari buruzko lantegia: aurrez aurreko bi saio NAPIrekin elkarlanean 2022ko udaberrian, eta aurrez aurreko bi saio NUKFrekin elkarlanean 2022ko udazkenean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## **10-22/PES-00260. Galdera, pobrezari eta bazterketari buruzko azterlan estatistikoetan eta txosten teknikoetan desgaitasunaren aldagaia sartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, pobrezari eta bazterketari buruzko azterlan estatistikoetan eta txosten teknikoetan desgaitasunaren aldagaia sartzeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du pobrezari eta gizarte bazterketari buruzko azterlan estatistiko eta txosten teknikoetan desgaitasunaren aldagaia sartzeari buruz (10-

22/PES-00260). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Nafarroako desgaitasunari buruzko lehen txostenean bai, sartu zen aldagai hori. 2021eko abenduan argitaratu zen, eta hemen deskargatu ahal da: <https://www.observatoriorealidadsocial.es/eu/ikerketak/i-informe-sobre-la-discapacidad-en-navarra-2020/es-569444/>

Orain Desgaitasunari buruzko II. Txostena bukatzen ari da, eta berriz ere aldagai hori jasoko du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

---

## **10-22/PES-00261. Galdera, Haur Pobreziaren Goi Komisarioarekin koordinatzeko ekintzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Haur Pobreziaren Goi Komisarioarekin koordinatzeko ekintzei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Haur Pobreziaren Goi Komisa-

rioarekin koordinatzeko ekintzei buruz (10-22/PES-00261). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Nafarroako Gobernuak zenbait harreman izan ditu, aurrez aurre zein telefonoz, helburua izanik Nafarroak bat egitea Haur pobreziaren eta desberdinkeriaren aurka borrokatzeko Espainiako Aliantzarekin.

Gobernuaren erabaki baten bidez atxiki zaio Nafarroa Aliantzari, eta departamentuak behar zen dokumentazioa prestatzeko lanak gidatu ditu. Halaber, onespenerako egin beharreko txostenak egin ditu. Gainerako departamentuak ere jakinaren gainean izan dira, batez ere gaian zeresan handiena dutenak: Osasunakoa, Hezkuntzakoa eta Garapen Ekonomikokoa.

Eskubide Sozialetako Departamentua Nafarroako Gobernuko gainerako departamentuekin koordinatzen ari da, Aliantzak izan ditzakeen garapen-ildoei heltzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

---

## 10-22/PES-00262. Galdera, programa-akordioeko ekintzei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, programa-akordioeko ekintzei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du programa-akordioaren betearazpenari buruz (10-22/PES-0262). Hona Nafarroako Gobernuko lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak ez dio aldi behingo jarraipenik egiten Legegintzaldiko Ituneko Akor-

dioari. Jarraipen batzorde bat arduratzen da horretaz, akordioaren 4.1 puntuan aipatzen dena.

Nolanahi ere, gardentasunaren eta Parlamentuaren kontrolaren mesedetan, departamentuei kontsulta egin zaie puntuen betetze mailari buruz, eta haxe da egungo betetze maila:

1. Bete diren neurriak edo modu jarraituan betetzen direnak: % 64,9

2. Partez bete diren neurriak edo betetze prozesuan daudenak: % 22,8

3. Bete ez diren neurriak edo betetzea Nafarroako Gobernuari ez dagokion neurriak: % 12,3

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2022ko urriaren 25ean.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués



## **10-22/PES-00263. Galdera, Gerra Zibilean eta frankismoan zehar Nafarroan gertatutakoari dagokionez ikastetxeetako testuliburuak aztertzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gerra Zibilean eta frankismoan zehar Nafarroan gertatutakoari dagokionez ikastetxeetako testuliburuak aztertzeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako 10-22-PES-00263 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaz geroztik, hau ezartzen du laugarren xedapen gehigarrian:

“Testuliburuak eta gainerako curriculum-materialak.

1. Autonomia pedagogikoa baliatuta, ikastetxe publikoen koordinazio didaktikoko organoek hartu beharko dituzte irakaskuntzak garatzeko erabili beharreko testuliburuak eta gainerako materialak.

2. Testuliburuak eta gainerako materialak editatzeko eta hartzeko, ez da beharrezkoa izango hezkuntza-administrazioaren alde aurreko

baimena. Nolanahi ere, ikasleen adinari dagokion zehaztasun zientifikora eta hezkuntza-administrazio bakoitzak onartutako curriculumera egokituta egon beharko dute. Gainera, Konstituzioan jasotako printzipioekiko, balioekiko, askatasunekiko, eskubideekiko eta betebeharekiko, eta lege honetan eta Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako eta hezkuntzajarduera osoak jarraitu beharreko printzipioekiko errespetua islatu eta sustatu beharko dute.

3. Testuliburuak eta beste curriculum-material batzuen ikuskapena hezkuntza-administrazioen eskumena da, eta hezkuntza-administrazioak irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua osatzen duten elementu guztiak ikuskatzeko gauzatzen duen prozesu arruntaren zati izango da. Prozesu horren bidez, Konstituzioan jasotako printzipioak eta balioak eta lege honetan xedatutakoa errespetatzen dela zaindu beharko da.”

Hezkuntza Departamentuak ez du ebidentziarik aurkitu egiaztatu ahal izateko inongo testu-berrikuspenik egin ote den 2013ko abenduaren 5etik, hau da, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoak, indarra hartu zuenetik, foru lege horren 14. artikularen lehenengo puntuan adierazten den bezala.

Iruñean, 2022ko urriaren 19an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

## 10-22/PES-00264. Galdera, 2021ean artatu gabe geratu ziren sexu- eta ugalketa-osasun zerbitzuetarako eskaerei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021ean artatu gabe geratu ziren sexu- eta ugalketa-osasun zerbitzuetarako eskaerei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru . parlamentari Marta Alvarez Alonso andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00264), jakin nahi baitu, 2021ean sexu- eta ugalketa-osasun zerbitzuetarako eskaera egin duten pertsonetatik, zenbat geratu diren artatu gabe. Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Informazio eskaera hori dela eta, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko (NOU) datuaren unitatearen departamentuari kontsulta eginda, hona hemen 2021ean itxarote zerrendan sartu ziren kontsulten xehakapena:

– 2021ean 40.207 pertsonak kontsulta medikorako eskatutako 70.540 hitzorduetatik 437 daude artatu gabe. Beraz, hitzorduen % 99,4 artatu ziren.

– 2021ean 58.365 pertsonak emaginaren/erizainaren/sexu-hezitzailearen kontsultarako eskatutako 137.056 hitzorduetatik 9.989 daude artatu gabe. Beraz, eskatutako hitzorduen % 92,8 artatu ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## 10-22/PES-00265. Galdera, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko 2021eko soldata-arrakalari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko 2021eko soldata-arrakalari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatzizko galdera egin du (PES-00265); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1. Nafarroako Gobernuak emakumezkoen eta gizonezkoen arteko 2021eko soldata-arrakalari buruzko txostenik egin al du?

Baiezkoan, txosten hori igortzea eskatzen da.

2. Ezezkoan, 2022an txostenik egiteko asmorik al du?

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala esaten zaio bi sexuetakoa langileek kobratzen dituzten soldaten arteko aldeari.

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala kontu konplexua da eta hainbat alderdi ditu; besteak beste, lantokiko diskriminazioa, generoetako batek gehiengoa izatea enplegu edo sektore jakinetan, edo lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko aukerak. Gainera, alderdi horiek elkarrekin loturik egon ohi dira.

Ziur aski, eta, zailtasun handiagoarekin, aurrekoei loturik, laneko igoera prozesuak dira enpresa eta sektoreetako soldata-arrakalaren eragin handiena dutenak, oraindik ere gizonezkoen aldekoak baitira (hainbat arrazoi tarteko).

Horiei zeharkako ikuspegitik erreparatuz gero, pobrezia aurkako borrokan aurrera egiteko neurrien diseinua erraztuko duten ezagutzak eta tresnak lor daitezke.

Adibidez, aipatzekoak dira Nafarroako Gobernuak egindako txosten hauek:

Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan azterketa kuantitatiboa egiten ari da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz, non aztergai baitira Administrazioan langileen artean dauden genero-arrakala nagusiak. Azterketa hori laster amaitzekoa da.

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak urtero informazioa prestatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuan ari diren pertsonen guztizko kopuruari buruz, mailaren, estamentu-taldearen, soldata-tartearen, sexuaren eta adin-tartearen arabera. Informazio hori Gobernu Irekiko webgunean argitaratzen da.

Esteka honen bidez eskura dezakezu:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/langile-publikoen-ordainsariak>

Halaber, Gizarte Errealitatearen Behatokiak lurraldeen arteko desberdintasunen azterketa egin zuen, Nafarroako eskualdeetan gizonen eta emakumeen artean dagoen soldata-arrakala barne. Hau da azterlanaren izenburua: “¿Existe una Navarra periférica? Desequilibrios territoriales en Navarra”.

Honako esteka honetan ikus daiteke:

<https://www.observatoriorealidadsocial.es/eu/ikerketak/existe-una-navarra-periferica-desequilibrios-territoriales-en-navarra/es-576487/#>

Azkenik, Nafarroako Estatistika Institutuak, Nafarroako Foru Komunitateko estatistikako erakunde ofizialak, iragan ekainaren 22an Nafarroako Soldata Egiturari buruzko urteroko inkesta argitaratu zuen. Horren helburu nagusia da langile bakoitzeko urteko irabazi gordinen zenbatespenak lortzea, lanaldi motaren, sexuaren, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN-09) atalaren eta Lanbideen Sailkapen Nazionalako (LSN-11) lanbidearen arabera. Esteka honen bidez eskura dezakezu inkesta:

[https://nastat.navarra.es/documentos/5122306/0/estructura\\_salerial\\_nastat.pdf/c2f9df60-a4a1-d2f4-5776-9b20b4976145?t=1655888242037](https://nastat.navarra.es/documentos/5122306/0/estructura_salerial_nastat.pdf/c2f9df60-a4a1-d2f4-5776-9b20b4976145?t=1655888242037)

2020ko soldata-egiturari buruzko udal inkesta ere argitaratu zen 2022ko uztailaren 27an (<https://nastat.navarra.es/es/tablas-powerbi-/tag/estadistica-municipalestructura-salerial>). Hor udalerriaren eta beste lurralde-zonifikazio batzuen arabera antolatuta azaltzen dira inguruabar hauei lotutako arrakalak: sexua, nazionalitatea, jaiolekua, sektore ekonomikoa, adin taldea eta desgaitasuna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apestequía

## 10-22/PES-00266. Galdera, espezie autoktonoen biodibertsitatea erresilientzia faktore gisa babesteko Gobernuaren ekimenei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, espezie autoktonoen biodibertsitatea erresilientzia faktore gisa babesteko Gobernuaren ekimenei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera aurkeztu du, idatziz erantzun dakion, jakin nahi baitu zer ekimen (hazi bankuak, germoplasma, espezie autoktonoen mintegi publikoak...) garatu dituen Gobernuak espezie autoktonoen biodibertsitatea erresilientzia faktore gisa babesteko (10-22-PES-00266). Hona Landa Garapeneke eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Biodibertsitatearen Zerbitzuak gauzatatutako ekimenak

Flora mehatxatuaren kontserbaziorako estrategietan, germoplasma bankuen eta landareak ugaltzeko zentroen garapenak garrantzi nabarmena hartu du azken urteetan.

Nafarroa interes handiko eremua da horrelako lanak egiteko, flora askotarikoa eta berezia duela eta Kantauriar mendikatearen eta Pirinioen arteko zubia egiten duelako.

Zehazki, Nafarroan gai horiekin zerikusia duten zenbait ekimen garatu dira azken urteetan.

#### • EX SITU KONTSERBAZIOA

Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, 2012. urtetik, Aranzadi Zientzia Elkarteko (hemendik aurrera, AZE) Botanikako aditu talde bat, bere arloan esperientzia guztiz egiaztatua duena, Nafarroako ex situ kontserbazioarekin zerikusia duten lanak egiten aritu da. Epe luzera begira, elkarlan horren helburu orokorra da Nafarroako Foru Komunitatean interesekotzat jotzen diren espezieen kontserbazioa bermatzea, bai eta galtzeko arrisku handiena duten espezieak ernetzeko,

ugaltzeko eta berriro sartzeko protokoloen garapena ere.

AZEk laginketa kanpainak egin ditu Nafarroan eta 180 espezie baino gehiagoren materialak bildu ditu. Espezie horietatik 30 baino gehiago dira Nafarroan interes bereziki jotzen direnak.

Tratamendu, kontserbazio eta erretze lanak Fraisoroko Landare Germoplasmaren Bankuko instalazioetan egiten dira. Germoplasma banku hori Fraisoroko Nekazaritza eta Ingurumen Laborategian dago (Zizurkil, Gipuzkoa), eta AZEK kudeatzen du.

Bestalde, lagin bakoitzaren beste ale batzuk beste germoplasma banku batzuetan edukitzeko gomendioa betez, beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzen da, besteak beste Gasteizko Olarizuko Lorategi Botanikoarekin eta Kewko Lorategi Botanikoarekin.

Deskribatutako lanak egiteko, kontuan hartzen dira honako hauek:

1) Egin beharreko lanak planifikatu aurretik AZE Nafarroako Gobernuarekin ados jartzen da, eta baimena eskatzen dio.

2) AZE arduratzen da materiala biltegitzeaz eta tratatzeaz, Nafarroako Gobernuaren oniritziarekin.

3) Hazien kontserbazioa AZEren ardura da, baina bildutako materialaren jabea Nafarroako Gobernua da.

4) Ezarritako baldintzak betetzen ez badira, Nafarroako Gobernuak eskatu ahalko du germoplasma beste erakunde edo laborategi batera eraman dadila.

5) Erretze saioetatik landareak lortzen badira, Nafarroako Gobernuaren esku jarriko dira, eta Arizmendiko mintegietan edo Nafarroako Gobernuak adierazten dituen instalazioetan eduki ahalko dira.

6) Laginen beste ale batzuk kontserbatuko dira arloko erakunde ospetsuekin elkarlanean, hala nola Gijongo Lorategi Botanikoa, Gasteizko Olarizuko Lorategi Botanikoa edo Kewko Lorategi Botanikoa.

7) Nafarroako Gobernuak bilketa kanpaina bakoitzerako baimenak izapidetzen ditu.

8) Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Ingurumen Kudeaketa enpresa publikoaren bitartez, egunean jartzen du Nafarroako intereseko florako populazioei buruzko informazioa, eta bilketa kanpaina bakoitzerako hautatutako espezieen populazioen kokapenari buruz dagoen informazioak eguneratuena ematen dio AZEri.

9) Nafarroako Gobernuak, ingurumen zaindarien bitartez, bilketa kanpainetan parte hartzen du (landa-lanerako laguntza).

10) Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ingurumen Kudeaketa enpresaren laguntza tekniko jasotzen du AZEkin ex situ kontserbazio lanak egin ditzan.

Orain arte Nafarroan egin diren laginketa kanpainetan, 180 espezie baino gehiagoren materialak bildu dira. Espezie horietatik 30 baino gehiago dira interes berezikoak jotzen direnak.

• 159/2022 ERREGE DEKRETUA, BASOKO ETA BASAFLORAKO BALIABIDE GENETIKOEN KONTSERBAZIOARI BURUZKOA

2022an onetsi eta BOEn argitaratu da 159/2022 Errege Dekretua, basoko eta basaflorako baliabide genetikoaren kontserbazioari buruzkoa. Errege dekretu horren xedea da oinarritzko gidalekroak ezartzea interes nazionalako landare-baliabide genetikoaren kontserbazioari eta erabilera jasangarriari buruz. Arau horren babesean, Basoko eta Basaflorako Germoplasmaren Banku Nazionala ezarri da (Banku Nazionala), helburutzat duena kontserbazio ekintzei lotutako material genetikoaren babesa indartzea eta haren dibertsitatea zaintzea. Halaber, Basoko eta Basaflorako Sareko Germoplasma Bankua sortu da, landare espezieen kontserbazio egoera hobetzeko eta kontserbazio programetan laguntzeko. Errege dekretu horren testuinguruan egin beharreko lehen urratsetako bat izanen da lehentasunen proposamena egitea Banku Nazionalan kontserbatu beharreko espezieei dagokienez. Horretarako, egungo egoeraren diagnostikoa egin behar da, eta lehentasunen hurrenkera ezarri, etorkizuneko Banku Nazionala planifikatzeko.

Basoko eta basaflorako baliabide genetikoaren kontserbazioari buruzko martxoaren 1eko 159/2022 Errege Dekretua aplikatuz, duela gutxi bi lantalde sortu dira. Basaflorako baliabide genetikoaren kontserbazioari buruzko lantaldea, zehazki, azpitalde gisa sortu da Landareen Kontserbaziorako Taldearen barruan. Nafarroako Gobernuak talde horretan parte hartzen du duela urte batzuetatik.

• EUROPAKO PROIEKTUAK

Azken urte hauetan Nafarroan egindako ex situ kontserbazio lanak, Europar Batasunak finantzatuta, honako proiektu europar hauen esparruan egin dira:

PYRCANSEED: Pirinioetako eta Kantauriar mendilerroko flora kontserbatzeko proiektua.

FLORAPYR AVANCE: Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiak (KAPB) floraren eta landare-diaren bilakaeraz eta kontserbazioaz ematen duen informazioarako ekarpena egitea, eta jakintza eta herritarren parte hartzea garatzea.

PRIO-CONEX: lehentasunak ezartzea klima aldaketarekiko kalteberatasun handiko eta ziurtasun taxonomikorik gabeko landare populazioen ex situ kontserbaziorako.

Proiektu horietan, intereseko espezieen ugalketarako material genetikoaren bankua sortzen laguntzeaz gain, ziurgabetasun taxonomikoa edota klima aldaketarekiko kalteberatasun handia duten espezie katalogatuekin metodologia egoki bat garatu nahi da, zeinak populazio barneko eta populazio arteko moldaeren azterketak eta azterketa genomikoak bilduko baititu, populazio eta espezie mailetan ex situ kontserbaziorako lehentasunak zehazteko. Gainera, adostutako irizpideak hartu nahi dira kontuan lanak lehenesteko.

Nafarroako Gobernua arduratu da baimenak izapidetzeaz proiektu horien barnean germoplasma biltzeko lanak egin ahal izateko.

Gainera, Florapyr Avance proiektuan Nafarroako Ingurumen Kudeaketa enpresa publikoak bazkide laguntzaile gisa parte hartu du.

Europako proiektu horien esparruan, lortutako datuak (akzesioak, bildutako espezieak, materialaren karakterizazioa, erretze proben emaitzak...) Aranzadi Zientzia Elkartearen datu baseetan sartzen ari dira, bai eta Kewko Lorategi Botanikoko hazi bankuan ere (MSB Millennium Seed Bank elkarteak). Gainera, azken urte hauetan datuak Lorategi Botanikoen Elkarte Iberomakaronesiarren –AIMJB– OpenREDBAG plataformara iraultzeko lanak egin dira.

(<http://www.redbag.es/openredbag/>). Plataformak helburu du Espainian kontserbatzen diren baliabide fitogenetikoaren datu baseak argitaratzea, eta horretarako oinarri gisa erabiltzen du Global Biodiversity Information Facility (GBIF) entitatearen plataforma.

Aipatu proiektuez gain, LIFE NADAPTA proiektu europarrean basoko zenbait espezie autoktono-

ren germoplasma bildu da. Horien artean nabarmentzen dira kontserbaziorako garrantzi bereziki jotzen diren bi espezie: *Prunus padus* eta *Carpinus betulus*.

• **EX SITU KONTSERBAZIOKO BESTE LAN BATZUK**

Nafarroako Gobernuak azken urteetan (2019tik hona) hainbat baimen-eskaera kudeatu ditu Nafarroako orkidea mehatxatuen germoplasma biltzeko, haiekin erretze saiakuntzak egiteko eta jakintza hobetzeko.

- Hiru orkidea espezieren germoplasma bildu da: *Orchis papilionacea* L., *Ophrys aveyronensis* (J.J. Wood) P. Delforge eta *Spiranthes aestivalis* (Poir.) Rich.

- Erretze saiakuntzak egin dira *Orchis papilionacea* L. espeziearekin.

• **NAFARROAKO INTERESEKO FLORAKO POPULAZIOAK INDARTZEKO SAIKUNTZAK**

2016an, AZEK, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, ex situ kontserbazio/ikerketa lan espezifikoak egin zituen Nafarroako lau espezie mehatxaturekin: *Eleocharis mamillata* subsp. austriaca, *Salsola soda*, *Microcnemum coralloides* eta *Woodwardia radicans*. Lan horiek Nafarroako Gobernuaren eta "la Caixa" Gizarte Ekintzaren arteko lankidetzaren esparruan finantzatu ziren.

*Eleocharis mamillata* subsp. austriaca: espezie honekin 2016an egindako lanen helburu nagusia lratiko populazioa indartzea izan zen. Horretarako, lratiko populazioetako batetik bildutako material begetatiboarekin hazitako landareak erabili ziren. Gainera, ugaltze materiala (haziak) bildu ziren zenbait gunetan, eta Nafarroako Gobernuaren ingurumen zaindarien bildutako materiala aztertu zen.

*Woodwardia radicans*: espezie honetarako 2016an zehaztutako zereginen barruan helburu nagusizat ezarri zen Gipuzkoako zenbait gunetan *Woodwardia radicans*-en material begetatiboa bildu eta horrekin hazkuntza egitea, eta etorkizunean erabiltzea Nafarroako Aritzakungo populazioa indartzeko. Horrela dibertsitate genetikoa eman nahi zaio populazio horri, orain arte azalera txikiko gunek bakar batean aurkitu baita.

*Salsola soda*: 2016ra arte *S. soda*-ren populazio bakar bat egiaztatu ahal izan zen Nafarroan

(Errege Bardean, tiro poligonotik hurbil). Beraz, lanaren xedea espeziearen populazio gehiago sortzea zen.

*Microcnemum coralloides*: 2016an espezie honetarako zehaztutako zereginen barruan helburu nagusizat ezarri zen espeziea ernarazteko protokoloa egitea.

2. Basoen eta Ehizaren Zerbitzuak gauzatuak ekimenak

• Life Nadapta proiektuaren esparruan "C3.2. Moldatutako haziak hautatzea" ekintza garatu zen: basoko espezie batzuen haziak hautatu ziren, ex situ kontserbatu ziren Fraisoroko hazi bankuan, eta multzo batzuk hautatu ziren in situ kontserbatzeko; horiek, azkenean, klima aldaketara ongien moldatutako hazien iturri deklaratu ziren, esteka honetan azaltzen den moduan:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Medio+Ambiente/Montes/Recursos+geneticos+forestales.htm](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Montes/Recursos+geneticos+forestales.htm).

• Ezpelaren beldarraren aurkako Ekintza Plana onetsi da, eta horren berri jakin daiteke Nafarroako Gobernuaren ingurumeneko webgunean ([http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Medio+Ambiente/Montes/Salud+de+los+bosques.htm#header3](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Montes/Salud+de+los+bosques.htm#header3)). Plan horren esparruan bada haziak biltzeko eta ex situ kontserbatzeko ekintza bat, ingurumen zaindarekin batera gauzatzen ari gara. Miluzeko instalazioetan daukagun baso espezieen hazien bankuan kontserbatzen dira haziak.

• Lehen urratsak egiten ari dira basoko baliabide genetikoaren kontserbazioari buruzko EUFORGEN erregelamendua inplementatzeko. Haren errege dekretua duela gutxi onetsi da ([https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-3717](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-3717)), eta haren Basoko Baliabide Genetikoaren Kontserbazio Plan Nazionala oraindik zirriborroan dago eta hartan parte hartzen ari gara. Baldintzak bete litzaketen masen prospekzioak egiten ari gara, eta proiektu europar bat onesten saiatzen ari gara, azterketa molekularrak finantzatu ahal izateko.

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

**10-22/PES-00267. Galdera, natur ondasunen kudeaketari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, natur ondasunen kudeaketari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera aurkeztu du idatziz erantzun dakion, jakin nahi baitu, natur ondasunen kudeaketari dagokionez, jasangarritasuna, erabilera ekitatiboa eta etekin banaketa bermatzen dituen tokiko eredu demokratiko eta integral baterantz jotzen duen ikuspeirik hartu al den (10-22-PES-00267). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Dibertsitate Biologikoari buruzko Nazio Batuen Hitzarmena 1996tik dago indarrean, eta 196 alderdi atxiki zaizkio. Horien artean daude Europar Batasuna eta Espainiako Erresuma.

Hiru helburu nagusi hauek ditu:

1. Dibertsitate biologikoaren kontserbazioa
2. Haren osagaien erabilera jasangarria
3. Baliabide genetikoak erabiliz lortzen diren onuren banaketa bidezkoa eta ekitatiboa

Hirugarren helburua lortzen saiatzeko, 2010eko urriaren 29an, Alderdien Konferentziaren hamargarren bileran, Japoniako Nagoyan, Nagoyako Protokoloa onetsi zen, baliabide genetikoak eskuratzeari eta haiek erabiliz lortzen diren onuretan modu bidezko eta ekitatiboan parte hartzeari buruzkoa.

Protokolo horrek 2014ko urriaren hartu zuen indarra, eta 131 alderdi atxiki zaizkio, tartean Europar Batasuna eta Espainiako Erresuma.

Hau du helburua: “modu bidezko eta ekitatiboan parte hartzea baliabide genetikoak erabiliz lortzen diren onuretan, baita baliabide genetikoaren eskuratzeko egokiaren bidez eta behar diren teknologien transferentzia egokiaren bidez ere, kontuan izanda baliabide eta teknologia horien gaineko

eskubide guztiak, eta finantzaketa egokia dela medio, hori lagungarria baita dibertsitate biologikoaren kontserbaziorako eta haren osagaien erabilera jasangarriko”. Haren aplikazio eremuan sartzen dira herrialdeen eskubide subiranoen pean dauden baliabide genetikoak eta baliabide genetiko horiei lotutako jakintza tradizionala.

Baliabide naturalen gaineko eskubide subiranoen egikaritzan, eta legeria edo erregelamenduzko baldintza nazionaleri loturik, beharrezkoak dira honako hauek:

- Aurretiazko adostasun funtsatua
- Elkarren artean adostutako baldintzak
- Eskuratzeko baimena

Europako esparruan honako erregelamendu hauek aldarrikatu dira, onurak eskuratzeari eta haietan parte hartzeari buruzko legeria edo erregelamenduzko baldintzak betetzeari dagokionez:

– 511/2014 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko apirilaren 16koa, Europar Batasunean erabiltzaileek Nagoyako Protokoloa (baliabide genetikoak eskuratzeari eta haiek erabiliz lortzen diren onuretan modu bidezko eta ekitatiboan parte hartzeari buruzko protokoloa) betetzeko neurriari buruzkoa

– 2015/1866 Betearazpen Erregelamendua, Batzordearena, 2015eko urriaren 13koa, zeinaren bidez arau zehatzak ezartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 511/2014 Erregelamendua aplikatzeko, bildumak erregistratzeari, erabiltzaileek erregelamendua betetzen ote duten gainbegiratzeari eta jardunbide hobeak aplikatzeari dagokienez.

Arau esparru nazionalean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 71. artikulua (33/2015 Legearen bidez aldatuta) honako hau ezartzen du:

– Espainiako baliabide genetikoak eskuratu ahal izateko beharrezkoak izanen dira aurretiazko adostasun informatua, elkarren artean adostutako baldintzak eta eskuratzeko baimena.

– Nagoyako Protokoloan xedatutakoari jarraituz, MITECO puntu fokal nazionala izanen da baliabide genetikoak eskuratzeari eta baliabide horien erabilerean ondoriozko etekinetan bidezko parte-hartze zuzena izateari dagokienez

– Baliabide genetikoak erabiliz lortutako etekinak nagusiki biodibertsitatearen kontserbaziora eta haren osagaien erabilera jasangarrira bideratuko dira. 124/2017 Errege Dekretuak, basataxonetatik datozen baliabide genetikoetarako irispideari eta erabileraren kontrolari buruzkoak, gaiari dagozkion lege horren artikulatuak garatzen ditu, eta aipatu erregelamenduak Estatuko ordenamendu juridikoan txertatzen ditu.

Errege dekretu hori dela-eta, adierazi behar da Nafarroako Gobernuak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak orain arte ez duela inongo eskuratzebaimenik eman baliabide genetikoak merkataritzako xedeetarako erabiltzeko, eta txostenik ere ez duela egin, Estatuko Administrazio Orokorrek horretarako emandako baimenen inguruan.

Merkatarizatik kanpoko xedea duten ikerketetarako baliabide genetikoak eskuratzeko baimenei dagokienez, zuzendaritza nagusi honek txostenak eman ditu eskaera hauei erantzunez:

– MAPAko Landa Garapeneko eta Baso Politikako Zuzendaritza Nagusiaren eskaera, *Ulmus* generoko espezie hauekin ikerketa egiteko: *U.*

*minor*, *U. laevis*, *U. glabra* eta *U. pumilla*. 2018ko maiatza.

– IKAN Biotech-en eskaera, lurpeko inguruneetan mikroorganismoekin ikerketa egiteko. 2019ko otsaila.

– MAPAko Berrikuntzako eta Baso Politikako Zuzendaritza Nagusiaren eskaera, ihartze-gaitzaren aurrean arteak eta artelatzen dituzten baliabide genetikoak kontserbatu eta hobetzeko programa nazionalerako. 2019ko urria.

– CSICeko Bioteknologia Zentro Nazionalaren eskaera, ur-dilistarekin (*Lemna* sp.) ikerketa egiteko. 2019ko azaroa.

– CIEMATen eskaera, bazter-lurretan zuhaitz eta zuhaixka espezieak hazteko BioNat proiekturako. 2020ko iraila.

– Max Planck-Garapen Biologikoko Institutua elkartearen eskaera, *Arabidopsis thaliana* dela-eta. 2022ko urtarrila.

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López



## **10-22/PES-00268. Galdera, ekoizpen- eta hornidura-kateetan bidezko merkataritzakoak eta baldintza sozialekiko arretakoak diren irizpideak jasotzen dituzten klausula sozialei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekoizpen- eta hornidura-kateetan bidezko merkataritzakoak eta baldintza sozialekiko arretakoak diren irizpideak jasotzen dituzten klausula sozialei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 5102 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko irailaren 26an (10-22/PES-268 galdera), ekoizpen- eta hornidura-kateetan bidezko merkataritzakoak eta baldintza sozialekiko arretakoak diren irizpideak jasotzen dituzten klausula sozialei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

1.- Ekoizpen- eta hornidura-kateetan bidezko merkataritzakoak eta baldintza sozialekiko arretakoak diren irizpideak jasotzen dituzten klausula sozialei buruz zein gehitu da eta zer kontratu publikotan 2021eko martxoaren 1etik?

Adierazi behar da 2021eko martxotik ez dela ekoizpen- eta hornidura-kateetako bidezko merkataritzari edo/eta baldintza sozialei buruzko klausularik jarri Ondare Zerbitzuko Kontratazio eta Aseguruen Atalaren kontratuetan.

KPFLren 64. artikulua arabera, erabili ahal diren adjudikazio irizpide sozialak artikuluan horren

6. apartatuan ezarritakoak dira, “edo ildo bereko beste batzuk.” Beraz, apartatu horretan dagoen zerrenda irekia da. Kontratazio publikoaren arloko Europako zuzentarau indardunen eskakizunei jarraituz 64. artikulua beraren 1. apartatuan ezartzen denez, adjudikazio irizpideek lotura izan behar dute kontratuaren xedearekin, eta balio behar dute kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik oneneko eskaintza zein den zehazteko. Beraz, badago irizpide batzuk edo besteak ezarzteko aukera teknikoa. Exekuzio baldintza bereziki dagokienez, era berean, KPFLren 66. eta 106. artikuluek baldintza horien katalogoa ezartzen dute zerrenda ireki gisara. Hor ere kontratuaren xedearekiko lotura eskatzen da, eta, baldintza hori betez gero, erabakitze aukera teknikoa dago.

Aurrekoarekin bat, uste izan da galderan aipatutakoez bestelako klausula batzuek hobeki betetzen dituztela lege baldintzak, alegia, kontratuaren xedearekin lotura izatea edo/eta kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik oneneko eskaintza zein den zehazteko balio izatea.

2.- Ba al dago tresnarik klausula horien gaineko jarraipena egiteko?

Kontratuen erregistroan –publikoa da edozein pertsona interesdunentzat– bilaketa egin daiteke irizpide honekin eta kontratazio estrategikoarekin lotutako beste irizpide batzuekin, Kontratazio Atarian dagoen esteka honetan:

<https://hacienda.navarra.es/registrocontratos-web/ctaRegistroDeContratos.aspx>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## **10-22/PES-00269. Galdera, kontsumo bulegoetako langile teknikoei kontsumo arduratsuaren arloko prestakuntza emateko egin diren urratsei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kontsumo bulegoetako langile teknikoei kontsumo arduratsuaren arloko prestakuntza emateko egin diren urratsei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak honako informazio hau ematen du Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko 10-22/PES-00269 idatzizko galderari buruz, zeinean jakin nahi baitu zer urrats egin den kontsumo bulegoetako langile teknikoei kontsumo arduratsuaren arloko prestakuntza emateko.

Nafarroako Gobernuari atxikitako Kontsumo Bulegoari dagokionez, eta, zehazki, Kontsumitzaileen Babeserako eta Kontsumoko Arbitrajeko Atalaren jarduerari dagokionez, horren eginkizunak baitira informazioa kudeatzea, erreklamazioak jasotzea eta kontsumitzaileei prestakuntza ematea: atal horretako teknikariak langile kualifikatuak dira, prestakuntza espezializatua dute, eta ongi ezagutzen eta erabiltzen dituzte kontsumo arduratsuaren kontzeptua eta haren ingurukoak (ekonomia zirkularra, km0, eta abar).

Teknikari horiek etengabeko prestakuntza jasotzen dute beren ardurapeko gaiei buruz, izan

ere hainbat gairi buruzko informazioa emateaz eta erreklamazioak izapidetzeaz arduratzen baitira (energia, telekomunikazioak, kontratazioa, aseguruak eta aireko garraioa, besteak beste).

Teknikari horiek hezitzaile ere badira, eta kontsumitzaileei zuzendutako ekintzetan esku hartzen dute.

Urte hauetan kontsumo arduratsuaren arloko heziketa ekintzak garatu dira, batez ere eskola umeei zuzenduak, adin horretan heziketak duen garrantzia dela-eta. Helburua da ikasle horiek eguneroko bizitzan aplikatzeko moduko kultura eta balioak bereganatzea.

Zehazki, urtero Consumópolis lehiaketa egiten da. Dagoeneko XVIII. edizioa du oraingoa, eta bi fase ditu, bata Estatu mailan eta bestea autonomia-erkidegoen mailan.

Halaber, kontsumo arduratsuari buruzko lantegiak eman dira bi ediziotan: Supermerkatua izenean, eskola umeei erosteko arduratsua egiten ikasi dute, faktura ulertzen eta kontsumitzaile gisa dituzten eskubideak ezagutzen; eta beste edizioa hiru ikasturtetan egin da jarraian, eta ikastetxeek hainbat lantegiren artean aukeratu ahal izan dute, denak ere kontsumo arduratsuekin lotuak.

Kontsumo Zerbitzuak horrelako jarduerak egiten jarraitzeko eta haien publiko objektiboa zabalitzeko asmoa du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluko xedatua betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari: Mikel Irujo Amezaga

## **10-22/PES-00270. Galdera, Nafarroako enpresek energiaren arloan dituzten merkataritza-harremanei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako enpresek energiaren arloan dituzten merkataritza-harremanei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak honako informazio hau ematen du Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko 10-22/PES-00270 idatzizko galderari buruz, zeinean jakin nahi baitu ba al dagoen txostenik Nafarroako Gobernuak energiaren arloan dituen merkataritza-

harremanei buruz, bermatze aldera harekin akordioak dituzten Nafarroako enpresek ez dutela pobrezia energetikoa eragiten duen abusuzko ekintzarik egiten Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako herrialdeetan.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak dakiela, Nafarroako Gobernuan ez dago adierazitako ezaugarriak dituen txostenik. Ez dago Foru Komunitateko, Espainiako Estatuko edo nazioarteko araurik ere, enpresek hirugarren herrialdeetan eragindako pobrezia energetikoaren monitorizazioa arautzen duenik edo administrazioak hartara behartzen dituenik, eta epe laburrean ez da halakorik garatuko, guk dakigula.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

---

## **10-22/PES-00271. Galdera, pobrezia energetikoaren arloan esku-hartzeko Nafarroako Gobernuak sustatutako neurriei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, pobrezia energetikoaren arloan esku-hartzeko Nafarroako Gobernuak sustatutako neurriei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du pobrezia energetikoaren arloan

esku hartzeko Nafarroako Gobernuak 2021eko martxotik sustatutako neurriei buruz (10-22/PES-00271). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Badira zenbait tresna, bai zuzenekoak bai zeharkakoak, energia beharrak estaltzeko gizarte babesaren sistema eratzen dutenak.

#### Zeharkako babesak:

Errenta bermatua pobrezia larria eta zeharbi-dez pobrezia energetikoa gutxitzeko tresna nagusia da, xedetzat baitu gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzea, oinarrizko beharrak asetzea ahalbidetzen dutenak, pertsonak edo/eta familiek berez ase ezin dituztenean. Pandemia garaian ikusi dugu eraginkorra dela, behar izan duten pertsona guztientzako estaldurari dagokionez.

EB	2021
Familia unitateak	18.366
Pertsona onuradunak	41.564

2022an ziur aski pareko kopuruak izanen dira.

Zuzeneko babesa:

Hiru tresna ditugu:

Gizarteratzeko aparteko laguntzak, Eskubide Sozialetako kontseilariaren abenduaren 28ko 442/2020 FORU AGINDUAn arautuak, zeinak prozedura garatzen baitu gizarteratzeko aparteko laguntzak balioetsi eta emateko. Laguntza horiek eskatzen ahal dira, beste kontzeptu batzuen artean, zor orokorrak ordaintzeko, tartean direla argin-

darraren, gasaren eta abarren fakturengatiko zorrek, bai eta berogailuak eta beste etxetresna batzuk erosteko ere. Eskubide Sozialetako Departamentuak kudeatzen ditu. Garrantzitsua da argitzea laguntza horiek kudeatzeko prozeduran xehakatu egin direla emandako laguntzen kontzeptuak, funtsean Bizigarritasuna eta ekipamendua eta Zor orokorrak; horregatik, 2021ean xehakatu gabe agertzen dira zor gehienak, "Zor orokorrak" kontzeptu zabalean, baina 2022an jada zehatzago identifikatu ahal ditugu.

Concepto	2021*		2022*	
	Nº ayudas	Importe	Nº ayuda	Importe€
<b>HABITABILIDAD Y EQUIPAMIENTO</b>	<b>1.091</b>	<b>459.351,25</b>	<b>698</b>	<b>201.591,36</b>
ACONDICIONAMIENTO VIVIENDA	57	92.025,74	25	42.628,06
CALDERA CALEFACCIÓN			6	2.989,30
CALENTADOR			15	758,00
COCINA			109	10.758,23
ELECTRODOMESTICOS- MAXIMO	1	1.299,00		
EQUIPAMIENTO - CALENTADOR	34	11.179,02	13	4.367,66
EQUIPAMIENTO - COCINA	255	84.372,03	67	22.360,00
EQUIPAMIENTO - ESTUFA	33	9.259,35	27	7.832,56
EQUIPAMIENTO - FRIGORIFICO	349	132.754,12	89	34.150,55
EQUIPAMIENTO - LAVADORA	362	128.461,99	86	31.013,60
ESTUFA			17	4.050,95
FRIGORIFICO			111	15.710,15
LAVADORA			121	16.644,75
OBRAS/REPARACIONES			12	8.327,55
<b>PAGO DEUDAS Y OTROS GASTOS - GENERALES</b>			<b>351</b>	<b>38.759,78</b>
AGUA			77	5.444,74
GAS			120	13.904,57
LUZ			141	17.769,56
SANEAMIENTO/BASURAS			13	1.640,91
<b>PAGO DEUDAS Y OTROS GASTOS - VIVIENDA</b>			<b>39</b>	<b>3.229,47</b>
ALTA AGUA			12	698,07
ALTA GAS			10	1.625,29
ALTA LUZ			17	906,11
<b>DEUDAS GENERALES</b>	<b>613</b>	<b>321.355,73</b>	<b>166</b>	<b>85.340,87</b>
<b>Total general</b>	<b>1.704</b>	<b>780.706,98</b>	<b>1.254</b>	<b>328.921,48</b>

\*2021-03-01etik 2022-10-13ra arte

Gizarteratzeko edo/eta larrialdi sozialeko prozesuetarako laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuek hainbat egoerari aurre egiteko baliatzen dituztenak; horietako bat da fakturak ordaindu ahal izatea zorpetu beharrik izan gabe. Udal eskumenekoak dira. Gaur egun uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuan araututa daude, zeinaren bidez arautzen baitira oinarrizko gizarte zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema; ordura arte, urteroko dirulaguntza-deialdien bitartez kudeatzen ziren.

2020an, osagarri gisa eta pandemiaren ondorioz, apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretua onetsi zen, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Aparteko neurri gisa, 6. artikulua 500.000 euroko dirulaguntza ezartzen du oinarrizko gizarte zerbitzuen titular diren toki entitateentzat, COVID-19aren ondorio sozialei aurre egitea xede bakarra duten larrialdi laguntzak finantza ditzaten.

Hona hemen laguntza horien datu garrantzitsuenak, energiaren alorrean:

Energiarekin zerikusia duten laguntza erregistratuak	2018		2019		2020		2021	
	Laguntzen kop.	Zenbatekoa	Laguntzen kop.	Zenbatekoa	Laguntzen kop.	Zenbatekoa	Laguntzen kop.	Zenbatekoa
Energia homidurako kontratuen altak	22	4.420,77	18	4.849,52	28	5.960,13	41	10.285,68
Argindarra, gasa, berokuntza eta ur bero zentralak eta beste erregai batzuk	796	174.220,83	833	181.637,34	620	121.058,86	908	179.238,97
<b>Energiarekin lotutako kontzeptuak, guztira</b>	<b>818</b>	<b>178.641,60</b>	<b>851</b>	<b>186.486,86</b>	<b>648</b>	<b>127.018,99</b>	<b>949</b>	<b>189.524,65</b>
<b>GIZ. P. - LARRIALDI LAGUNTZAK, GUZTIRA (kontzeptu guztiak)</b>	<b>4.803</b>	<b>1.475.635,00</b>	<b>4.165</b>	<b>1.378.840,90</b>	<b>7.592</b>	<b>2.306.405,73</b>	<b>5.810</b>	<b>1.785.405,51</b>

**OHARRA:** datu hauetan jasotako gizarteratze edo/eta larrialdi sozialeko prozesuetako laguntzak Tramit@ aplikazioan erregistratutakoak dira. Nafarroako Gobernuak toki entitateen esku jartzen du aplikazio hori laguntzak kudeatzeko. Entitateak ez daude beharrik beren laguntza guztiak erregistratzera; beraz, laguntzen kopurua handiagoa izan liteke. Oraindik ez daude eskura 2022ko datuak.

Azkenik, gizarte-bonu termikoa dugu, Transizio energetikorako eta kontsumitzaileen babesarako presako neurriei buruzko urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege-dekretuaren bidez arautua. Estatuko aurrekontu orokorretatik finantzatzen da, baina Nafarroako Gobernuak kudeatzen du, Esku-bide Sozialetako Departamentuaren bidez. Gizarte-bonu termikoa deritzon laguntza programaren bidez, berokuntzaren, ur beroaren edota sukaldearen erabilerak sortzen dituen gastu termikoak

kontsumitzaileentzat kalteberetegi. Kontsumitzaile kalteberetat jotzen dira elektrizitatearen gizarte-bonuaren onuradunak (hura aplikatuta, enpresa merkaturatzaileek argindarraren fakturan deskontua egiten diete kontsumitzaile kalteberetegi, kalteberatasun handikoei edo gizarte-bazterketaren arriskua dutenei). Orain arte bi ekitaldi kudeatu dira, eta hauek izan dira emaitzak:

<b>GBT</b>	<b>euroak</b>	<b>Onuradunen kop.</b>
Gizarte-bonu termikoa 2019	1.358.007,36	16.860
Gizarte-bonu termikoa 2020	1.201.214,28	14.930

Lehen ekitaldian (GBT 2019) ordainketa baino ez zen kudeatu. Gero, kudeatzeko modua aldatu egin zen eta Nafarroako Gobernuak bere gain hartu zuen 2020ko GBTaren kudeaketa osoa: energia hornidurako enprekin harremanetan jartzea bezero kalteberak identifikatzeko, balizko onuradunekin harremanetan jartzea eta ordainketa kudeatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **10-22/PES-00272. Galdera, , interneterako sarbiderik ez duten edota gaitasun digital apalak dituzten talde zaurgarrienei aurrez aurreko arreta bermatzeko hartutako neurriei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, , interneterako sarbiderik ez duten edota gaitasun digital apalak dituzten talde zaurgarrienei aurrez aurreko arreta bermatzeko hartutako neurriei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00272), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Gaur egungo digitalizazio prozesuaren esparruan zer neurri hartu du 2021ean, bermatze aldera aurrez aurreko arreta ematen zaiela Interneterako sarbiderik ez duten edota gaitasun digital apalak dituzten kolektibo kalteberenei?

Nafarroako herritarrei aurrez aurreko arreta ematea bermaturik dago Nafarroako Gobernuak ematen dituen zerbitzu guztietan. Aurrez aurreko arretaz gain, Foru Gobernuak telefono bidezkoa eta telematikoa ere eskaintzen ditu.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez.

Azken esparru horretan, izapideen digitalizazioan aurrera egiten ari da, eta herritarrek errazago aukeratzen ahal dute Administrazioarekiko komunikaziorako eta harremanetarako bidea.

Ildo horretatik, iaz Nafarroako Gobernuaren izapideen katalogoan hobekuntzak egin dira, izapideetarako harpidetza errazteko, eta geroztik berrikuntzen gaineko informazioa ematen da posta elektronikoz.

Aplikazioak harpidetzeko aukera ematen du bai izapide jakinetarako bai iragazitako bilaketetarako, eta berrikuntza garrantzitsuren bat dagoenean harpidedunei jakinarazpena bidaltzen die posta elektronikoz. Katalogo berriaren berrikuntza nagusietakoa da hori, eta mugarri bat ezartzen du [www.navarra.es](http://www.navarra.es) atariaren birmoldaketan, bulego fisikoetan ematen den zerbitzu berbera emateko estrategiari eutsiz.

Katalogoa egoitza elektronikoarekin konektaturik dago, eta 1.500 zerbitzu eta izapide baino gehiago eskaintzen ditu, Foru Administrazioak herritar, enpresa eta profesionalen eskura jarriak, tartean laguntzak eta dirulaguntzak, enplegu publikoaren deialdiak, gizarte prestazioak, baimen eta lizentziak, erregistroak eta ziurtagiriak, zergen ordainketa eta ikastaro eta azterketetarako inskripzioa.

Bisita kopuruari erreparatuta nabarmentzen dira Ogasunarekiko kudeaketak eta zerga kontsultak, epaitegietako izapideak, osasun zentrorako hitzordua eskatzea, enplegu publikoaren deialdietako inskripzioa eta jarraipena, kontratazio zerrendak kontsultatzea, enplegu eskaera berri-zea eta arrantza lizentzia eskuratzea.

Katalogoak 2020an 22 milioi bisita baino gehiago jaso zituen, aurreko urtean baino % 30 gehiago. 2021ean 19 milioi bisita jaso ziren.

Gogorarazi behar da 2021ean [navarra.es](http://navarra.es) atariko izapide elektronikoak goraiatu egin zirela Espainiako administrazio publikoetako izapideei buruzko azterlan batean. Hain zuzen, Nafarroako Gobernuaren katalogoa bigarren kokatu zuten rankingean, Kataluniako Generalitatean atzean, eta haren erabilerraztasuna nabarmendu zuten, bereziki. Txosten horrek "Radiografía del lenguaje administrativo en España" du izena, eta gai digitalan eta hizkera argian espezializatuta dagoen Prodigioso Volcán aholkularitza enpresak egin zuen.

Halaber, parlamentari jaunak galderan aipatzen dituen gaitasun digital apaleko pertsonen dagokienez, azpimarratu behar da Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak, Nafarroako Gobernuaren NASERTIC enpresa publikoarekin lankidetzan, oinarrizko gaitasun digitalen arloko prestakuntza

eskaintza aurkeztu zuela iragan apirilean, lehentasunez zuzendua bazterketa digitalaren arriskua duten pertsonen eta adinekoei. Gurutze Gorriaren, Elkarte fundazioaren eta Nafarroako beste elkarte askoren laguntzari esker bultzatu zen.

Ikastaro horiek Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NL-NEZ) gaitasun digitalen arloan egindako prestakuntza eskaintzaren osagarri dira, eta aurrez aurre nahiz online ematen dira.

Ikastaro horien bidez lurraldearen egitura sendotu eta arrakala digitala murriztu nahi da, eta teknologiaren onurak erakutsi nahi zaizkie bazterketa digitalaren arriskua duten pertsonen. Aldi berean Nafarroako eraldaketa digitala bultzatu nahi da inor atzean utzi gabe.

Ikastaro horiek Nafarroako Gobernuaren Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako Planaren barruan daude, eta batez ere honako hauek dituzte xede:

ez ikasketarik ez lanik ez duten gazteak, erretiratuak, migratzaileak, gizartetik baztertutako biztanleak, desgaitasuna duten pertsonak, eta emakumeen kolektibo batzuk.

Prestakuntza programa horrek 2025era arte iraunen du, eta guztira ia 9.000 pertsonari emanen die prestakuntza. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Next Generation EU funtsak (SEM) jaso ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **10-22/PES-00273. Galdera, itsaspeko biziaren babesari buruzko sentsibilizazio eta kontzientzia kanpainei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, itsaspeko biziaren babesari buruzko sentsibilizazio eta kontzientzia kanpainei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera aurkeztu du idatziz erantzun dakion, jakin nahi baitu zer programa edo kanpaina sustatu duen Nafarroako Gobernuak 2021ean

itsaspeko biziaren babesari buruzko sentsibilizazio eta kontzientziatorako (10-22-PES-00273). Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak emandako erantzuna helarazten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak:

Zer programa edo kanpaina sustatu du Nafarroako Gobernuak 2021ean itsaspeko biziaren babesari buruzko sentsibilizazio eta kontzientziatorako?

Nafarroako Gobernuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ez du inongo programa edo kanpainarik egin itsaspeko biziaren babesari buruzko sentsibilizazio eta kontzientziatorako.

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López



## **10-22/PES-00274. Galdera, itsaso eta ozeanoen kontserbazioa eta ibaien garbitasuna indartzeko herrialde pobretuetan gauzatutako ekimenei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, itsaso eta ozeanoen kontserbazioa eta ibaien garbitasuna indartzeko herrialde pobretuetan gauzatutako ekimenei buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du (10-22/PES-00274), jakin nahi baitu zer ekimen egin diren 2021ean garapenerako lankidetzaren esparruan, herrialde pobretuetan itsaso eta ozeanoen kontserbazioa eta ibaien garbitasuna indartzeko. Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Bere ibilbide sektoriala dela-eta, Nafarroako lankidetzak ezin dio heldu garapen prozesuek bereak dituzten ekintzen osotasunari. 2030 Agendaren esparruan, eta giza garapen jasangarrian laguntzen duten sektoreen arteko loturez jabeturik, Nafarroako Gobernuak jarduketak sustatzen ari da zenbait sektoretan, ustez sektore horiek hobeki moldatzen zaizkielako Nafarroako lankidetzaren ibilbideari eta Nafarroako lankidetzaren agenteen esperientziari eta gaitasunei. Hori horrela, III. Gida Planean apustu egiten da jarduketak bost sektore nagusitan biltzearen alde; izan ere, horietan Nafarroako lankidetzaren tradizioa indartu egin daiteke sinergiak ezarriz Nafarroako Gobernuo beste departamentu batzuekin eta esku hartzen duten agenteen artean:

1. Osasunerako eskubidea, bere bi alderditan, eragina baitu 3. GJHan (bizitza osasuntsua bermatzea eta guztien ongizatea sustatzea adin guztietan) eta 6. GJHan (uraren eta saneamenduaren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria bermatzea guztientzat).

2. Landa garapen jasangarria. Eragin berezia du 2. GJHan (gosea ezabatzea, elikadura-segurtasuna eta nutrizioaren hobekuntza lortzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea) eta 12. GJHan (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak)

3. Hezkuntzarako eskubidea; espezializazio honek zerikusia du 4. GJHarekin (hezkuntza inklusiboa, ekitatezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea pertsona guztientzat)

4. Emakumeen ahalduntzea. Batez ere 5. GJHan eragiten du (generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neskatxa guztiak ahalduntzea)

5. Toki gizarte zibila eta gobernantza demokratikoa, eta berriaz 16. GJHa (gizarte zuzen, bake-tsu eta inklusiboak sustatzea) eta 17.a (Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza biziberritzea), toki-ko garapen agenteen gaitasunak areagotzeko bai herrialde bazkideetan eta bai Nafarroan ere.

Ezarritako lehentasunek ez dakarte beste sektore batzuk baztertzerik, baina lankidetzaren programen barnean garatutako ekintza gehienak ezartzen dituzte, markatu diren lehentasun sektorialekin bat etorritik, zeinak lankidetzaren proiektuak lantzen eta garatzen dituzten agenteekin adostu baitira.

Hona hemen, laburbilduta, 2021ean finantzatutako esku-hartze sozial eta ekonomikoak eta GJHetan izan duten zuzeneko eragina:

ODS AÑO 2021	Nº Intervenciones	Total financiación 2021	Total % 2021
ODS 1 FIN DE LA POBREZA	6	764.487,00	5,74%
ODS 2 HAMBRE CERO	22	2.832.404,00	21,26%
ODS 3 SALUD Y BIENESTAR	24	2.553.154,00	19,16%
ODS 4 EDUCACIÓN DE CALIDAD	38	1.827.492,00	13,72%
ODS 5 IGUALDAD DE GÉNERO	20	2.691.038,00	20,20%
ODS 6 AGUA LIMPIA Y SANEAMIENTO	3	329.750,00	2,47%
ODS 7 ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE	1	33.711,00	0,25%
ODS 8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO	6	859.411,00	6,45%
ODS 10 REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES	2	70.000,00	0,53%
ODS 11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES	1	28.000,00	0,21%
ODS 16 PAZ JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS	7	896.095,00	6,73%
ODS 17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS	14	438.768,00	3,29%
TOTAL GENERAL	144	13.324.310,00	100,00%

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **10-22/PES-00275. Galdera, Efficold S.A. enpresarekin eginiko FFP2 maskara-hornidurako kontratuaren gaineko eragozpen-ohar etengarriaren ondoren egin gabeko kontu-hartzailtza nagusiaren txostena prestatzeko eskaerari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Efficold S.A. enpresarekin eginiko FFP2 maskara-hornidurako kontratuaren gaineko eragozpen-ohar etengarriaren ondoren egin gabeko kontu-hartzailtza nagusiaren txostena prestatzeko eskaerari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22-PES-00275 informazio-eskaera aurkeztu du, zeinaren bidez ondoren datozen galderei buruzko informazioa eskatzen baitu. Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Zenbait aldiz ahozko eskaerak egin zitzaizkien Kontu-hartze Zerbitzuari eta orduan Kontu-hartzailtza zuzendari nagusi zegoenari. Ezin da zehaztu zenbat eskaera egin ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

**10-22/PES-00276. Galdera, osasun arloko kontu-hartzailletza delegatuak Efficold S.A. enpresarekin eginiko FFP2 maskaren hornidurarako kontratua zela-eta emandako eragozpen-ohar etengarriaren gainean Kontu-hartzailletza Nagusiak egindako txosten-zirriborroari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasun arloko kontu-hartzailletza delegatuak Efficold S.A. enpresarekin eginiko FFP2 maskaren hornidurarako kontratua zela-eta emandako eragozpen-ohar etengarriaren gainean Kontu-hartzailletza Nagusiak egindako txosten-zirriborroari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 5110 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko irailaren 26an (10-22/PES-276 galdera), jakin nahi baitu ea Kontu-hartzailletzako Zuzendaritza Nagusiko funtzionarioek prestatutako kontu-hartzailletza nagusiaren txostenaren zirriborrorik egon al den, osasun arloko kontu-har-

tzailletza delegatuak Efficold enpresari FFP2 maskarak erostearen gainean emandako eragozpen-ohar etengarria dela-eta. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak informatzeko duena:

Kontu-hartzailletzako zuzendari nagusiak 2022ko maiatzaren 9an sinatutako txostena –zeinaren bidez ebatzi baitzen organo kudeatzaileak agertutako desadostasuna, kontu-hartzailletza delegatuak emandako eragozpen-oharra zela-eta– Kontu-hartzailletza Zerbitzuak parte hartuta prestatu zen, eta ezin da esan “Kontu-hartzailletzako Zuzendaritza Nagusiko funtzionarioek prestatutako zirriborrorik” egon zenik. Jakina, sinatutako txostena ez da hasierako proposamenaren berdina, proposamen horrek ekarpen erantsiak dituelako, bai Kontu-hartzailletza Zerbitzuarenak baita Zuzendaritza Nagusiarenak berarenak ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

**10-22/PES-00277. Galdera, 2020ko ekainean eta abuztuan, merkatuan CE marka zuten maskarak egoteari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2020ko ekainean eta abuztuan, merkatuan CE marka zuten maskarak egoteari buruzkoa. Galde-

ra 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22-PES-00277 informazio-eskaera aurkeztu du, zeinaren bidez ondoren datozen galderei buruzko informazioa eskatzen baitu. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1.- Ikusi PEI 00285 informazio-eskaerari emandako erantzuna.

2.- Ikusi PEI 00285 informazio-eskaerari emandako erantzuna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **10-22/PES-00278. Galdera, Efficold SA enpresarekin FFP2 maskarak erosteko kontratuak formalizatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderearen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Efficold SA enpresarekin FFP2 maskarak erosteko kontratuak formalizatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22-PES-00278 informazio-eskaera aurkeztu du, zeinaren bidez ondoren datozen galderei buruzko informazioa eskatzen baitu. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Hona hemen 2021eko apiriletik formalizatutako larrialdi kontratuen zerrenda:

2021/04/09 322-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua. 15 hezegailu NOUko ZIUetako arnagailuetarako

2021/04/21 365-2021 Ebazpena. Larrialdiko garbiketa kontratua ISSrekin. NOU-B

2021/04/28 391-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua. NOUko pneumologiako ekografoa

2021/04/28 393-2021 Ebazpena. Larrialdiko garbiketa kontratua MAJUrekin NOUarako

2021/04/30 408-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua ISSrekin Iruñeko NH Pamplona Iruña Park eta Bed4U hoteletarako eta Burlatako San Francisco Javier gogarte-etxerako

2021/05/11 457-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua SARS COV2aren sekuentziazio genomikoko lan teknikoetarako

2021/06/08 557-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua hoteletan gainazalak babesteko

2021/06/25 633-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua Tuterako ZIUko klimatizazio sistemarako

2021/07/28 725-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua. Lau Philips desfibriladore OKLZrako

2021/09/21 914-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua SSGrekin, garraio sanitarioarako

2021/10/18 995-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua Servicios Sociosanitarios enpresarekin. Garraio sanitarioa, COVID pazienteak ospitalera eta alta hartutakoak etxera eramateko

2021/11/04 1103-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua Ambulancias Baztán Bidasoa enpresarekin

2021/11/08 1115-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua Printzearen Gotorlekuko eta Plaza hotelako garbiketarako

2021/11/16 1146-2021 Ebazpena. Larrialdi kontratua garraio sanitarioarako

2022/06/30 596-2022 Ebazpena. APRO 503-2020 larrialdi kontratua, FFP2 maskaren hornidurararako

2022/08/19 751-2022. Larrialdi kontratua San Miguel klinikarekin 2020ko irailetik 2022ko martxora arte

Gelditzen diren kontratuak formalizatzeari dagokionez, gaur egun larrialdiko espediente hauek izapidetzen ari gara:

- Isipuen erosketa
- Antigeno-testen erosketa

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **10-22/PES-00279. Galdera, osasun arloko kontu-hartzailletza delegatuak eragozpen-ohar etengarria emanik Osasunbideak fakturak ordaindu izanari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasun arloko kontu-hartzailletza delegatuak eragozpen-ohar etengarria emanik Osasunbideak fakturak ordaindu izanari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 5113 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko irailaren 26an (10-22/PES-279 galdera), jakin nahi baitu ea Kontu-hartzailletza Nagusiko Zuzendaritza Nagusiak egokitze jotzen duen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak fakturak ordaindu izana osasun arloko kontu-hartzailletza delegatuak eragozpen-ohar etengarria emanik. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

Galderan aipatzen diren fakturak nonbait Effcold enpresak igorritakoak dira, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2020ko bigarren sei hilekoan erositako 499.400 maskararen truke. Hala baldin bada, komeni da adieraztea egindako jarduketak onesteko espedienteari buruzkoa zela kontu-hartzailletza delegatuaren eragozpen-oharra, eta inola ere ez fakturen ordainketari buruzkoa, zeren eta, larrialdiko prozeduraren bidezko adjudikazioa izanik, guztiz legezkoa baita jarduketak gauzatzea dagokien espedientea izapidetu baino lehen.

Fakturen ordainketari dagokionez, jasorik dago nola maskaren hornidura egin zen eta faktura onartu zen. Kontratu Publikoei buruzko 8/2018 Foru Legearen 155. artikulua aplikatuta, faktura 30 egun naturaleko epean ordaindu behar da, erregistroan jasotzen den egunetik hasita. Prestazioak gauzatu egin ziren eta hitzartutako baldintzak bete ziren, eta, beraz, dagozkien fakturak ordaindu izana ezin da ezegokitzat edo ordenamendu juridikoaren kontrakotzat kalifikatu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## **10-22/PES-00280. Galdera, 2020ko ekainetik abendura bitartean FFP2 maskarek merkatuan izandako batez besteko hileko prezioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2020ko ekainetik abendura bitartean FFP2 maskarek merkatuan izandako batez besteko hileko prezioari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22-PES-00280 informazio-eskaera aurkeztu

du, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu 2020ko ekainetik abendura bitartean FFP2 maskarek merkatuan izandako batez besteko hileko prezioari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Berez, ez zegoen merkatuko batez besteko preziorik, ingurune guztiz ezegonkor hartan prezioak etengabe aldatzen zirelako eta gerta zitekeelako aldi berean prezio desberdinak izatea. Hain zuzen ere, ez zegoen ohiko jokaleku batean merkatutzat har daitekeen hori.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **10-22/PES-00281. Galdera, FFP2 maskarak Efficold SA enpresari erosteko kontratua dela-eta osasun arloko eledunei deitzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, FFP2 maskarak Efficold SA enpresari erosteko kontratua dela-eta osasun arloko eledunei deitzeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22-PES-00281 informazio-eskaera aurkeztu du, zeinaren bidez hau galdetzen baitu: "Osasun

Departamentuak deitu al die osasun arloko eledunei FFP2 maskarak Efficold enpresari erosteko kontratua dela-eta?". Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Osasun departamentuak bilerak izaten ditu politika, gizarte, ekonomia eta lanbide arloetako hainbat eragile eta ordezkariekin. Batzuetan ordezkariak berek eskatzen dute bilera egiteko eta beste batzuetan departamentuaren ekimenez egiten da. Hori horrela, zure taldeak ongi dakienez, parte hartu izan baitu, legegintzaldian zehar informazio bilerak egin dira eta egiten ari dira talde parlamentarioekin, departamentu honek lan-tzen dituen gaien inguruan, eta ohiko kudeaketa gaietara nahiz unean uneko gaietara heltzen zaie.

Hain zuzen ere, informazio eskaeran aipatzen duzun osasun materialaren erosketari dagokionez, zu zeu eta zure taldeko beste parlamentari

bat Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O–NOZ) Zerbitzu Ekonomikoetako arduradunekin bildu zineten, zuek eskatuta. Bilera horretan, besteak beste, bide bat ezarri zen O-NOZek COVID-19aren pandemian zehar egindako 9.000tik gora erosketa-espeditenteak eskuragarri jartzeko.

Han bildu ziren Osasuneko kontseilaria, Osasuneko zuzendari nagusia, departamentuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Zentralen zuzendaria, eta Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean PSNk, Geroa Baik, Podemos-Ahal Duguk, Izquierda-Ezkerrak eta EH Bilduk dituzten

eledunak. Informazio eskaera honen gaiari dagokionez, bileran partekatu egin ziren Osasun departamentuak eragozpen-txostenei buruz aurkeztutako desadostasunak, hau da, gaiari buruz egin zituen ekarpenak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

## **10-22/PES-00282. Galdera, FFP2 maskarak Efficold enpresari erosteko kontratuaren eragozpen-ohar etengarriari buruz Kontu-hartzailtza Nagusiko zerbitzu juridikoei kontsultarik egin ez izanaren zergatiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, FFP2 maskarak Efficold enpresari erosteko kontratuaren eragozpen-ohar etengarriari buruz Kontu-hartzailtza Nagusiko zerbitzu juridikoei kontsultarik egin ez izanaren zergatiari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 5116 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko irailaren 26an (10-22/PES-282 galdera),

FFP2 maskarak Efficold enpresari erosteko kontratuaren eragozpen-ohar etengarriari buruz Kontu-hartzailtza Nagusiko zerbitzu juridikoei kontsultarik egin ez izanaren zergatiari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

Ez dago zerbitzu juridikoei kontsulta egin beharrik eragozpen-ohar etengarrien gaineko desadostasunari buruzko ebazpenak prestatzeko. Kasu honetan, eragozpen-ohar etengarriaren arrazoia eta planteatutako desadostasuna ebazteko ez zen beharrezkoa Kontu-hartzailtza Nagusiko zerbitzu juridikoei esku hartzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## **10-22/PES-00283. Galdera, kontu-hartzailletza delegatuak eginiko eragozpen-ohar etengarri baten ondoren Kontu-hartzailletza Nagusiak bigarren txostena egiteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kontu-hartzailletza delegatuak eginiko eragozpen-ohar etengarri baten ondoren Kontu-hartzailletza Nagusiak bigarren txostena egiteari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 5117 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko irailaren 26an (10-22/PES-283 galdera), jakin nahi baitu ea legegintzaldi honetan zenbat

aldiz egin den Kontu-hartzailletza Nagusiaren bigarren txosten bat, prestaturik eta sinaturik dagoenean Kontu-hartzailletza Nagusiaren beste txosten bat, kontu-hartzailletza delegatuaren eragozpen-ohar etengarri baten ondokoa. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

Legegintzaldi honetan, gai horri dagokionez, behin bakarrik gertatu da informazio eskaeran azaldutako egoera: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zentroak eta Ekonomia eta Ogasun Departamentua FFP2 maskarez hornitzeko larrialdiko espedientean bideratutako jarduketak onetsi direnean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

---

## **10-22/PES-00284. Galdera, FFP2 maskarak Efficold enpresari erosteko espedientean Kontu-hartzailletzako zuzendari nagusiak bigarren txostena egin aurretik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2022ko ekainaren 6rako deitutako bilerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, FFP2 maskarak Efficold enpresari erosteko espedientean Kontu-hartzailletzako zuzendari nagusiak bigarren txostena egin aurretik Ekonomia eta Ogasu-

neko kontseilariak 2022ko ekainaren 6rako deitutako bilerari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 5118 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko irailaren 26an (10-22/PES-284 galdera), FFP2 maskarak Efficold enpresari erosteko espedientearen Kontu-hartzailtzako zuzendari nagusiak bigarren txostena egin aurretik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2022ko ekainaren 6rako deitutako bilerari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

1.- Bidalitako deialdian ageri diren pertsonak joan ziren bilerara, bai eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zerbitzu Zentraletako Administrazio Zerbitzuko burua ere.

2.- Osasunbidearen ordezkariak galdetu zuten zergatik jarraitzen zuen etengarria izaten eragozpen-oharrak, eta hau erantzun zitzaion: desados-

tasuna ebazteko txostenean azaltzen den moduan, egindako jarduketaren deskribapen faltagatik jarraitzen du eragozpenak etengarria izaten, funtsezko jarduketak baitira. Osasunbidearen ordezkarien iritziz, espedientearen jada ongi deskribaturik zeuden egindako jarduketak

3.- Prozesu bat hastea adostu zen, zeinean Kontu-hartzailtzako Zuzendaritza Nagusiak adieraziko baitzuen zehatz-mehatz zer gabeziak galazten zuten tramitazioan aurrera egitea, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, berriz, gabezia horiek betetzeko behar zen informazioa emanen baitzuen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

---

## **10-22/PES-00285. Galdera, 2020ko ekainetik abendurako epean egondako CE marka zuten FFP2 maskaren eskaintzari buruzkoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2020ko ekainetik abendurako epean egondako CE marka zuten FFP2 maskaren eskaintzari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak

10-22-PES-00285 informazio-eskaera aurkeztu du, zeinaren bidez ondoren datozen galderei buruzko informazioa eskatzen baitu. Hona Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Eskaintza batek hainbat baldintza eta datu multzo bat biltzen ditu. Pandemiaren testuinguruan ezinezkoa izan zen gerta zitezkeen eskaintza posibleak halakotzat zehaztea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko.**

### **10. oinarritik 12. oinarrira bitartekoak aldatzea eta eskabideak aurkezteko epe berri bat abiaraztea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko abenduaren 29an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko abenduaren 12an eginiko bilkuran, erabaki zuen enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoaren oinarriak onestea, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko.

Aipatu erabakia argitara eman zen 2022ko 259. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 27koan, eta, 2022ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, abenduaren 15ekoan.

Argitara eman ondoren, atzeman da ez direla aurreikusi aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrendak, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduaren 10. artikulua xedatzen duenari jarraikiz.

Hori dela eta, aldaketa egiten da, 10. oinarri berri bat sartuz eta oraingo 10. eta 11. oinarriak berriz zenbakituz, hurrenez hurren 11. eta 12. oinarriak izatera igaroz. Horren ondorioz, eskabideak aurkezteko epe berri bat abiarazten da.

Hori dela eta, HAU ERABAKI DA:

1. Aldatzea enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko, 2022ko abenduaren 12ko bilkuran erabakitakoa. Honako testu hau izanen du:

**“10. oinarria.** Aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrendak.

Nafarroako Parlamenturako aldi baterako langile-kontratazioari buruzko Erregelamenduak xedatzen duenari eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Langileen Estatutuan aurreikusitakoari

jarraikiz, honako aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrenda hauek egingen dira, hautaprozesuan parte hartu eta bertan posturik lortu ez duten pertsonekin:

1) Posturik gabeko gaituen zerrenda.

2) Hautaprozesua ez, baina oposizioaldiko hautaprobetakoren bat gaitu duten izangaien zerrenda, honako lehentasun-ordenaren arabera antolatua:

a) proba gaituen kopuru handiena

b) proba gaituetan lorturiko guztizko puntuaziorik handiena

Azken emaitzan berdinketarik izanez gero, ariketa praktikoan puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde ebatziko da. Eta, berdinketak irauten bada, ariketa teorikoan lortutako puntuazioak hartuko dira kontuan. Berdinketak irauten bada, lehiaketaldian puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde ebatziko da. Eta horrela ere berdinketa mantentzen baldin bada, zozketa bidez ebatziko da.

Zerrenda horiek subsidiarioki aplikatuko dira, funtzio publikoan sartzeko hautapen prozesu baten ondorioz indarrean dauden kontrataziorako izangaien zerrenden atzetik, baina lehentasuna izanen dute aldi baterako kontrataziorako hautapen prozedura batetik datozen izangaien zerrenda indardunekiko, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

**11. oinarria.** Aurkeztutako agiriak.

11.1. Aurkeztutako dokumentazioa berreskuratzea zilegi izanen dute izangaiak, berriaz eskatuz gero eta erreklamazio edo errekurtsorik jarri ez bada. Berreskuratze-eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahal da, aurretik beste hiru hilabete igaroak direnean izendapen-erabakia Nafa-

roako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu denetik.

11.2. Aurreko apartatuan ezarritako epea bukatzen bada dokumentazioa berreskuratzeko eskaerarik egin gabe, izangaiak dokumentazio-berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da. Ondorioz, horretarako eskubidea galduko du, eta dokumentazioa suntsitu egingen da.

11.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkezten baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Halakoetan, agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

## **12. oinarria.** Errekurtsiak.

12.1. Deialdi honen, bere oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsioetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsioa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunean kontatzen hasitako hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunean kontatzen hasita.

12.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo kalifikazio-epaimahaiak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsioa aurkeztea Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita”.

**2.** Eskabideak aurkezteko epe berri bat abiaraztea, hamabost egun naturalekoa, aldaketa hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**3.** Agintzea deialdiaren aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin, bai eta Parlamentuko web orrian eta iragarki-oholean ere.

Iruñean, 2022ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

